

6-12 URTE ARTEKO HAURREN ARTEAN ARRISKU ETA BABESGABETASUN EGOERAK IDENTIFIKATZEKO ADIERAZLEEN GIDA

UDAL GAI AK BILDUMA



Elabora y edita: Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz

Diseño y maquetación: Gráficas Irudi

Ilustraciones: Mercedes Corretga

Traducción: Servicio de Euskera

Imprime: Gráficas Irudi

D. L.:

Mayo 2022

**6-12 URTE ARTEKO
HAURREN ARTEAN ARRISKU
ETA BABESGABETASUN
EGOERAK IDENTIFIKATZEKO
ADIERAZLEEN GIDA**

VITORIA-GASTEIZ 2022



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

AURKEZPENA

Gasteizko Udalaren misioa da “gure udalerriko ume eta nerabeen eskubideak zaintzea, haien ongizatea lortzeko, dituzten beharrei erantzuna ematen zaiela ziurtatuko duten prebentziozko ekintzak eta babes-ekintzak garatuta”.

Udalbatzak 2018ko maiatzaren 25ean aitorten instituzionalaren bitartez onartu zuen Gasteizko Udalaren Haurtzaroari eta Nerabezaroari Laguntzeko Tokiko II. Planaren (2018-2022) helburuen artean daude hauek: “Haurtzaroan eta nerabezaroon direnek jasan ditzaketen tratatu txarrak eta babesgabetasuna goiz detektatzearen alde egitea eta gizarteko eragile eta herritar guztien inplikazioa bilatzea” eta, zehazki, “adierazleen gida bat eratu eta zabaltzea, arriskuan eta babesgabe diren haur eta nerabeen egoerak detektatzeko, beste sail eta sistema batzuetako eragileentzat”.

Konpromiso hori betetzeko, 2019an, “0-5 urte bitarteko haurren arrisku- eta babesgabetasun- egoerak identifikatzeko adierazleen gida” argitaratu zuen, eta hezkuntzako, osasungintzako, aisialdi eta denbora libreko zerbitzuetako, gizarte-zerbitzuetako eta gizarte-elkarte eta -erakundeetako langileen artean zabaldu zuen. Asmoa hurrekin eta haurrentzat lan egiten duten langile eta gizarte-eragile guztiei laguntza eskaintzea da.

Orain, 6 eta 12 urte bitarteko haurrengan egoera horiek identifikatzeko gida hau aurkeztu dugu, eta espero dugu tresna erabilgarria izatea, adin horietako haurren zaurgarritasun- eta/edo babesgabetasun-egoera posibleak goiz hautemateko eta prebenitzeko.

Jon Armentia Fructuoso

Gizarte Politiken, Adinekoen eta Haurren Saileko zinegotzi ordezkaria



ESKERRAK

Gida hau Ignacia Arruabarrena Madariaga EHU Euskal Herriko Unibertsitateko Psikologia Fakultateko irakasle agregatuak egin du. Arruabarrenak ibilbide akademiko eta profesional zabala izan du 1986tik haurren babesaren eta familia barruko indarkeriaren arloan.

Udalarekin, eta zehazki Haurtzaro eta Senitarte Zerbitzuarekin, hainbat une eta programatan izan duen elkarlana oso baliotsua da. Halaber, eskerrak eman nahi dizkiogu, gida hau eta aurrekoa egiteko baita arlo horri buruz zerbitzu honek eskatzen dituen hezkuntza eta gizarte-zerbitzuetako profesionali ematen dizkien prestakuntzak eskaintzeko ere izan duen prestutasunagatik eta lankidetzagatik. Gida 0-5 urte bitarteko haurren arrisku- eta babesgabetasun-egoeretara bideratuta dago.

Gida Haurtzaro eta Senitarte Zerbitzuko buru Loli García Garcíak, eta Balorazio Unitateko buru Susana García Elburgok zuzendu eta editatu dute.

Loli García García

Haurtzaro eta Senitarte Zerbitzuko burua



IGNACIA ARRUBARRENA MADARIAGA, profesora agregada de la Facultad de Psicología de la Universidad del País Vasco UPV/EHU. Trayectoria académica y profesional centrada desde el año 1986 en la temática de la protección infantil y violencia familiar, desarrollando actividades de investigación básica y aplicada, implantación y evaluación de programas y servicios, elaboración de manuales, protocolos de actuación e instrumentos para los Servicios de Infancia, asesoramiento a administraciones públicas, y formación universitaria y profesional. Autora de publicaciones en libros y revistas especializadas, autora y colaboradora en diferentes publicaciones técnicas sobre el tema, ponente en congresos nacionales e internacionales.



AURKIBIDEA

6-12 URTE ARTEKO HAURREN ARTEAN ARRISKU ETA BABESGABETASUN EGOERAK IDENTIFIKATZEKO ADIERAZLEEN GIDA

La protección de los niños y niñas	11
Dificultad Social y Desprotección	12
La importancia de la implicación del ámbito educativo, sanitario, de ocio y tiempo libre, y otros servicios comunitarios en la ayuda a los niños, niñas y familias en situación de Dificultad y Desprotección	13
La importancia de la prevención y la intervención precoz	13
Marco legal en materia de protección a la infancia y adolescencia	14
Papel de los Servicios Sociales	14
Principios generales de actuación	15
Obligaciones legales de profesionales y servicios que trabajan con niños, niñas y adolescentes	15
Diferencia entre notificación y denuncia	17
Desafíos de la notificación	17
Tipologías de desprotección infantil e indicadores para su detección	19
Maltrato físico	21
Negligencia	24
Violencia sexual	31
Maltrato psíquico	34
Otras tipologías	37
Mejor prevenir ¿quiénes son las familias, niños y niñas vulnerables?	39
Los valores y creencias culturales y el trato a los niños y niñas	40
Un mejor trato a los niños y niñas: comportamientos adultos que no constituyen desprotección pero debieran corregirse	42
ANEXO.	
Necesidades básicas en la infancia 6-12 años: indicadores de satisfacción	44

HAURREN BABESA

Haur bat hazteko ingurunerik egokiena haren familia propioa da, maite duten eta babesa eskaintzen dioten helduen zaintzapean.

Baina ez da hain erraza. Guraso guztiek dituzte zailtasunak eta mugak. Dena den, haien gaitasun propioekin eta laguntza-sarearekin, seme-alabei behar duten zaintza eta arreta ematea lortzen dute gehienek, haien ongizatea eta garapen egokia bermatuz (ikus *“6-12 urte arteko haurren oinarritzko beharrak: Asebetetzearen adierazleak”* eranskina).

Guraso batzuen zailtasunak eta mugak handiagoak eta ugariagoak dira, edo une jakin batzuetan areagotu egiten dira. Zailtasun horiek gurasoengandik eurengandik etor daitezke, edo kanpoko faktoreek eraginda. Hauek dira ohikoenetako batzuk: estres maila altua, ondoez psikologikoa, heldutasunik eza, nekea, bakardadea, zailtasun ekonomiko larriak, indarkeria edo bikoteko arazo larriak, edo droga edo alkoholaren gehiegizko kontsumoa. Era berean, haur batzuk haztea erronka handiagoa da, dituzten ezaugarri bereziak direla eta (adb., desgaitasuna, osasun-arazoak, jarrerarekin lotutako zailtasunak). Egoera horiek modu negatiboan eragin diezaike gurasoen –edo guraso-funtzioa egiten duten beste heldu batzuen– gaitasunari, haien seme-alabak modu egokian zaintzeko eta artatzeko orduan, eta posible da jaramonik ez egitea edo min ematea.



Haurrek eskubidea dute babes ditzaten. Gizarte gisa, haien segurtasuna eta ongizatea bermatzeko eta haientzako mehatxu bat izan litezkeen egoeretatik babesteko ardua kolektiboa dugu. Legez, Gizarte Zerbitzuek badituzte horretarako konpetentziak. Baina zerbitzu horiek ez dute harreman zuzen naturalik haur eta familia horiekin, hortaz, legeak dio beharrezkoa dela harreman zuzen hori duten zerbitzu eta profesionalen – hezkuntzaren, osasunaren edo aisialdiaren arlokoak, esaterako– inplikazioa eta laguntza, posizio egokian baitaude haur eta familia horiek identifikatzeko eta kasu bakoitzean behar diren laguntza- eta babes-mekanismoak martxan jartzeko.

ZAILTASUN SOZIALA ETA BABESGABETASUNA

Bi egoera mota handitan multzoka daitezke Gizarte Zerbitzuek, babesteko, laguntzeko eta konpentsatzeko esku-hartze espezifikoak egin behar izaten dituzten egoerak.

- 1. Zailtasun soziala:** Gurasoak haien seme-alaben ongizateaz arduratzen dira eta ahal duten guztia egiten dute guraso gisa dituzten ardurak modu egokian betetzeko, baina haien kontrolpean ez dauden familia, gizarte edo hezkuntza arloko egoera, gabezia eta arazoek haurraren garapena kaltetzen dute edo kalte dezakete, eta beharrezkoa da Gizarte Zerbitzuen esku-hartzea, laguntzeko edo egoera konpentsatzeko. Hemen daude, adibidez, gizarteko eta inguruneke egoera zailek eragindako familiak (adb., pobrezia; indarkeria- edo delinkuentzia-indize altuak dituzten inguruneak; osasun eta hezkuntza arloko behar adinako zerbitzurik edo batere zerbitzurik ez duten inguruneak, etab.), beste pertsona batzuen indarkeriaren biktimak diren haurrak (erasotzaileak adingabeak edo helduak izan, eskola-jazarpena barne), edo etorkizun hurbilean seme-alabak modu egokian artatzeko gurasoek duen gaitasuna kaltetu edo mugatu dezaketela aurreikus daitekeen egoerak bizi dituzten familiak (adibidez, estres handiko egoerak, familia-krisia, buruko osasun-arazoak).
- 2. Babesgabetasuna:** Egoera hauetan, gurasoek –edo guraso-funtzioa dutenek– ez diete haien seme-alaben beharrei arreta egokia ematen, ezin dutelako, ez dakitelako edo ez dutelako nahi. Eta honako hauek gertatzen dira:
 - a. Gurasoen jarrera desegokia** –aktiboki edo omisioz; fisikoa, psikologikoa edo sexuala–,
 - b. haurrari kalte handia eragiten diona (fisikoki, emozionalki, kognitiboki edo sozialki),** edo kalte hori **eragiteko arrisku handia** duena.

ZAILTASUN ETA BABESGABETASUN EGOERAN DAUDEN HAURREI ETA FAMILIEI LAGUNTZEKO ORDUAN HEZKUNTZA, OSASUN ETA AISIALDI ARLOAK ETA KOMUNITATEKO BESTE ZERBITZU BATZUK INPLIKATZEAREN GARRANTZIA

Ikastetxeetan, osasun-zerbitzuetan edo aisialdi-zerbitzuetan, prestatuta dauden pertsonen egunero ikusten dituzte haurrak, haien itxura fisikoa, jarrera eta garapen-prozesua behatzeko. Leku horietan susmatu edo hauteman daiteke lehen aldiz guraso batzuek haien seme-alabak hazteko zailtasunak dituztela, edo babesgabetasun-egoera bat gertatu dela.

Era berean, leku pribilegiatuak dira egoera zaurgarri batean egon daitezkeen gurasoak orientatzeko eta haiei laguntzeko, babes emozionala emateko, haurren garapenari buruzko eta hazkuntza-praktika egokiei buruzko informazioa emateko, eredu gisa jarduteko, haien seme-alabekin harreman positiboan izaten laguntzeko eta, beharrezkoa denean, behar dituzten laguntza-zerbitzuetara bideratzeko.

PREBENTZIOAREN ETA ESKU HARTZE GOIZTIARRAREN GARRANTZIA

Inoiz ez da beranduegi esku hartzeko, baina hobe ahalik eta azkarren egitea.

Haurren babesgabetasun-egoeren agerpena prebenitzea da alternatiba egokia, eta posible da. Horretarako, beharrezkoa da seme-alabak hazteko eta artatzeko zailtasunak izateko arriskuan dauden gurasoak identifikatzea eta laguntzeko baliabideak eta zerbitzuak eskaintzea.

Hori posible izan ez bada, eta arazoak dagoeneko agertu badira, funtsezkoa da goiz esku hartzea. posible da haurrenganako tratu txarrak edo arduragabekeria modu puntualean gertatzea, baina, normalean, patroï bati jarraitzen dio. Orokorrean, zenbat eta denbora gehiago pasatu, orduan eta larriagoak izaten dira ondorioak. Zenbat eta lehenago esku hartu, orduan eta aukera gehiago daude egoerari buelta emateko eta haurrengan ondorio negatiboak saihesteko.

**PREBENTZIOA ETA ESKU HARTZE
GOIZTIARRA
GILTZARRIAK DIRA**

19 CONVENCIÓN SOBRE LOS DERECHOS DEL NIÑO

ARTÍCULO 19

PROTECCIÓN CONTRA LOS MALOS TRATOS

Las autoridades deberán protegerte de los malos tratos, los abusos y la violencia, también de los que provengan de tus padres o responsables legales.



Haurrak eta nerabeak babesteari buruzko esparru legal orokorra Hauren Eskubideei buruzko Hitzarmenetik eratorria da; NBEko Batzar Nagusiak aldarrikatu eta adostu zuen 1989ko azaroaren 20an, eta Espainiak 1990ean berretsi zuen. Haur eta nerabe guztien (18 urtetik beherako pertsonak aintzat hartuta) eskubide besterenezinak ezartzen ditu hitzarmen horrek, baita Estaturen, botere publikoen, gurasoen eta gizarte osoaren betebeharrak ere, eskubide horiekiko errespetua bermatzeko eta haur guztiek eskubide horiek baliatu ahal izateko, bereizketarik egin gabe. Haren artikuluen artean, **edozein indarkeria edo esplotazio motaren aurkako babesaren jaso zeko haurrek duten eskubidea** nabarmentzen du hitzarmenak.

Espanian, hainbat lege egin dira eskubide horrekin lotuta, batzuk Estatu mailan –Adingabeen Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoa, haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzeko buruzko uztailaren 28ko 26/2015 Legea eta haurrei eta nerabeei indarkeriaren aurrean babes osoa emateko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoa nabarmentzen dira–, eta, beste batzuk, erkidego mailan –hala nola haurrak eta nerabeak artatzeko eta babesteko buruzko otsailaren 18ko 3/2005 Legea, eguneratze-prozesuan dagoena–.

GIZARTE ZERBITZUEN ROLA

Gure legediaren arabera, haurrak babesgabetasun egoeretan daudenean esku hartzeko betebeharrak dute Gizarte Zerbitzuek. Euskal Autonomia Erkidegoan, udaletako Gizarte Zerbitzuen eskumenekoak dira sentibilizazio soziala, prebentzioa eta esku-

hartzea, arrisku arineko eta babesgabetasun moderatuko egoeretan. Kasu larriagoetan, berriz, lurralde mailako Gizarte Zerbitzuei (Foru Aldundiak) dagokie esku hartzea. Zerbitzu horiek babesgabetasun-egoera bat dagoela zehazteko eta haren larritasun maila baloratzeko erabiltzen dituzten irizpide teknikoen deskribapen xehea irakurtzeko, ikus Balora Tresna (http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/balora/es_doc/adjuntos/BALORA_ES.pdf).

Herritarrek eta profesionalak udaleko Gizarte Zerbitzuetara jo behar dute haur bat haren familian tratu eta arreta desegokia jasotzen ari den kezka edo susmoa dutela jakinarazteko, edo hori gertatzeko arriskua dagoela jakinarazteko.

JARDUTEKO PRINTZIOO OROKORRAK

Indarrean dagoen legediak printzipio orokor hauek ezartzen ditu Gizarte Zerbitzuek jardun dezaten:

- Erabakiak hartzean irizpide nagusia haurren interes gorena izatea. Interes-gatazkaren bat izanez gero, haurren eskubideak gailentzen dira beste edozein pertsonaren eskubideen aurretik.
- Prebentzioa eta esku-hartze goiztiarra sustatzea.
- Gurasoei laguntza ematea haien seme-alabak modu egokian arta ditzaten, eta familia-unitatea mantentzea Gizarte Zerbitzuen lehenetsutako jarduketara gisa.
- Gurasoekiko harremanetan sentzibilitatea, zintzotasuna eta errespetua erakustea, eta dagozkien eskubideak errespetatzea.
- Haurra familiarengandik bereiztea, haren oinarrizko segurtasuna eta integritatea bermatzeko guztiz beharrezkoa denean soilik, eta familia berriro ere ahal bezain pronto batzea lortzeko lan egitea.
- Diziplina arteko lana egitea, eta beste zerbitzu batzuekin koordinatu eta elkarlanean aritzea.
- Azkar esku-hartzea.

HAURREKIN ETA NERABEEKIN LAN EGITEN DUTEN PROFESIOALEN ETA ZERBITZUEN BETEBEHAR LEGALAK

Estatuko zein erkidegoko legediaren arabera, hauek dira haurrekin eta nerabeekin lan egiten duten profesionalen betebeharrak:

1. Babesgabetasun-egoeran dauden haurrei **laguntza** ematea,
2. babesgabetasun-egoera posibleen susmoak dituztenean, Gizarte Zerbitzuei jakinaraztea, eta
3. azken horiei laguntzea, eskatutako **informazioa emanez**.



Obligación de notificar a Servicios Sociales toda sospecha de una posible situación de desprotección

“1. Toda persona o autoridad, especialmente aquellas que por su profesión, oficio o actividad detecten una situación de riesgo o posible desamparo de una persona menor de edad, lo comunicarán a la autoridad o sus agentes más próximos, sin perjuicio de prestarle el auxilio inmediato que precise.

2. Cualquier persona o autoridad que tenga conocimiento de que un menor no está escolarizado o no asiste al centro escolar de forma habitual y sin justificación, durante el período obligatorio, deberá ponerlo en conocimiento de las autoridades públicas competentes, que adoptarán las medidas necesarias para su escolarización.

3. Las autoridades y las personas que por su profesión o función conozcan el caso actuarán con la debida reserva.

En las actuaciones se evitará toda interferencia innecesaria en la vida del menor” (art. 13, LO 1/1996, en la redacción dada por la Ley 26/2015 y 8/2021).

Art. 15. Toda persona que advierta indicios de una situación de violencia ejercida sobre una persona menor de edad, está obligada a comunicarlo de forma inmediata a la autoridad competente y, si los hechos pudieran ser constitutivos de delito, a las Fuerzas y Cuerpos de Seguridad, al Ministerio Fiscal o a la autoridad judicial, sin perjuicio de prestar la atención inmediata que la víctima precise.

Art. 16. El deber de comunicación previsto en el artículo anterior es especialmente exigible a aquellas personas que por razón de su cargo, profesión, oficio o actividad, tengan encomendada la asistencia, el cuidado, la enseñanza o la protección de niños, niñas o adolescentes y, en el ejercicio de las mismas, hayan tenido conocimiento de una situación de violencia ejercida sobre los mismos.

En todo caso, se consideran incluidos en este supuesto el personal cualificado de los centros sanitarios, de los centros escolares, (...)

Art. 15 y 16, LO 8/2021

JAKINARAZPENAREN ETA SALAKETAREN ARTEKO DESBERDINTASUNA

Jakinaraztea eta salatzea ez dira gauza bera.

Babesgabetasun-egoera posible baten adierazleak autoritate eskudunari (kasu honetan, **Gizarte Zerbitzuei**) komunikatzea edo jakitera ematea da **jakinaraztea**. Komunikazio horrek ez du prozesu judizial bat abiarazten. Gizarte Zerbitzuek (udalekoak edo lurraldekoak, kasuaren arabera) zer gertatzen ari den ikertu beharko dute, babesgabetasun-egoerarik dagoen egiaztatu, eta, hala dagokionean, larritasuna baloratu eta dagozkion babes-neurriak hartu. Horretarako, lantalde eta profesional espezializatuak dituzte, haurren interesak lehenesten dituztenak, haien eskubideekiko errespetu eta sentsibilitate handia izango dutenak, eta haien gurasoei lagunduko dietenak.

Salatzean, delitu izan daitekeen gertakari baten berri ematen zaio autoritate eskudunari. Segurtasun-indarren eta segurtasun-zerbitzuen aurrean, adingabeen fiskaltzan edo epaitegian aurkezten da. Kasu honetan ere ez da prozesu judizialik hasten. Epaileak ikertu egin beharko du, eta delitu-zantzurik dagoen erabaki beharko du; kasu horretan, dagokion prozesu judiziala hasiko da.

JAKINARAZPENAREN ERRONKAK

Haur batenganako babesgabetasun-egoera posible baten gaineko susmoak Gizarte Zerbitzuei jakinaraztea ez da erabaki erraza. Faktore askok eragin dezakete pertsona batek segurtasunik eza edo beldurra sentitzea, eta azkenean kasuaren berri ez ematea erabakitzea. Horrek oso ondorio negatiboak izan ditzake; izan ere, benetan babesgabetasun-egoera bat gertatzen ari bada, haurrak behar duen laguntza jasotzeko aukera ukatzea eragin dezake horrek, eta seguru aski gero eta kalte larriagoak sortuko dizkion egoera bat jasaten jarraitzea. Batzuetan, arazoaren gaineko susmoa duen edo arazoa hautematen duen pertsonak pentsa dezake gai dela konpontzeko, eta haurrarekin edo haren familiarekin hitz egiten saiatzeko da. Batzuetan, horrek funtziona dezake. Baina, kasu guztietan, garrantzitsua da Gizarte Zerbitzuei jakinaraztea, egoera balora dezaten eta jarduteko modurik onena zein den erabaki dezaten. Horretarako, profesional eta lantalde espezializatuak dituzte.

Faktore ugari –eta, batzuetan, uste faltsuek– jakinaraztea zaildu dezakete. Gehien gertatzen direnetako batzuk dira:

- Haurren babesgabetasun-egoerak eta horiek hautemateko adierazleak zein diren ez jakitea.
- Gizarte Zerbitzuei non eta nola jakinarazi ez jakitea.
- Jakinarazteko betebeharrak legala dutenik ez jakitea.

- Zalantzak, susmoen sendotasunaren gainean (“ez nago ziur”, “susmoak baino ez dira”, “ez dut behar adinako frogarik edo ebidentziarik”).
- Egoera Gizarte Zerbitzuek kontuan hartzeko bezain larria ez dela uste izatea, ez dutela ezer egingo uste izatea, edo, aitzitik, haurra familiarengandik bereiziko dutela uste izatea.
- Jakinarazpenak ondorio negatiboak izango dituen beldur izatea, esaterako, susmoak baieztatzen ez badira gerta litekeena (adibidez, familiaren erreakzio txarra, haurra bereiztea, beste pertsona batzuek gaitzespena edo kritikak jasotzea, arazoaren aurrean bakarrik sentitzea).
- Babesgabetasun-egoera bat ingurune eta familia normalizatueta (estatus kultural eta ekonomiko ertain edo altukoak) ezin dela gertatu pentsatzea.
- Aurretiazko esperientzia txarrak.
- Egoera benetan larria izan balitz haurrak inguruko pertsonaren bati laguntza eskatuko ziokeela pentsatzea.

Faktore eta uste faltsu horiek indargabetu egin behar dira:

- Hauen gaineko informazioa eta prestakuntza jasota: haurren babesgabetasun-egoerak zein diren, adierazleak, haurrekin eta familiekin lan egiten duten profesionalen betebeharrak legalak, eta Gizarte Zerbitzuekin harremanetan jartzeko prozedura.
- Kontuan izanda Gizarte Zerbitzuei dagokiela susmoak babesgabetasun-egoera batekin bat datozen edo ez egiaztatzea, eta ez beste inori; eta, horretarako, diziplina anitzeko lantalde espezializatuak dituztela.
- Aintzat hartuta Gizarte Zerbitzuek banaka baloratuko dutela kasu bakoitza, eta, balorazio horren arabera, kasu bakoitzean haurrari eta haren familiari laguntzeko behar diren neurriak erabaki eta jarriko dituztela martxan.
- Kontuan izanda ahalik eta neurri arinenak hartuko dituztela Gizarte Zerbitzuek, haurraren babesa bermatuko duen alternatiba bakarra denean baino ez dutela proposatuko haurra familiarengandik bereiztea, eta ahal bezain pronto familia berriz batzea lortzeko lan egingo dutela.
- Haien beldurrak eta ziurgabetasunak Gizarte Zerbitzuetako profesionali kontatuz eta haiekin modu zintzoan partekatuz.
- Kontuan izanda haurren babesgabetasuna familia mota guztietan gertatzen dela, familiaren estatusa edo jatorria edozein izanik ere.
- Aintzat hartuta familian babesgabetasuna pairatzen duten haurrek zailtasun handiak izaten dituztela gertuko pertsonari ere laguntza eskatzeko, eta ohikoena arazoa ezkatzea izaten dela.
- Haurrak babesteko eta haien eskubideak eta ongizatea defendatzeko konpromiso argia hartuta.

Obligación de colaborar en la recogida de información de los Servicios Sociales

*“Para el cumplimiento de las finalidades previstas en el capítulo I del título II de esta ley, **las Administraciones Públicas competentes podrán proceder, sin el consentimiento del interesado, a la recogida y tratamiento de los datos que resulten necesarios para valorar la situación del menor, incluyendo tanto los relativos al mismo como los relacionados con su entorno familiar o social.***

***Los profesionales, las Entidades Públicas y privadas y, en general, cualquier persona facilitarán a las Administraciones Públicas los informes y antecedentes sobre los menores, sus progenitores, tutores, guardadores o acogedores, que les sean requeridos por ser necesarios para este fin, sin precisar del consentimiento del afectado”** (art. 22 quáter, LO 1/1996, en la redacción dada por la Ley 26/2015).*

HAURREN BABESGABETASUN MOTAK ETA HORIEK HAUTE- MATEKO ADIERAZLEAK

Hurtzaro goiztiarrean eta lehen hurtzaroan babesgabetasun mota ezberdinak bereizten dira. Mota horietan guztietan, ez zaie jaramonik egiten haurren oinarrizko beharrei, behar fisikoak, segurtasun-beharrak, emozionalak, sozialak edo kognitiboak barne (ikus eranskina). Hauek dira lau babesgabetasun motak: tratu txar fisikoak, arduragabekeria, indarkeria sexuala eta tratu txar psikikoak. Posible da horietako bakar bat agertzea, baina, normalean, aldi berean agertzen dira.

Haurren babesgabetasun mota nagusiak hurtzaro goiztiarrean eta lehen hurtzaroan

- Tratu txar fisikoak
- Arduragabekeria (haien behar fisikoekiko, segurtasun-beharrekiko, prestakuntza-beharrekiko eta behar psikikoekiko)
- Indarkeria sexuala
- Tratu txar psikikoak
- Beste batzuk (haurraren jarrera kontrolatzeko gurasoen ezintasuna, tratu desegokia, galbideratzea, eskaletasuna, lan-esplotazioa, jaio aurreko tratu txarrak, botere bidezko Münchhausen-en sindromea, abandonatzea)

Egoera horiek detektatzea erronka handia da:

1. Batetik, familiako intimitatean gertatzen dira, kanpoko pertsonak edo lekukoak bertan ez daudenean.
2. Bestetik, orokorrean, egoera horiek jasaten dituzten hurrek zailtasunak dituzte gertatzen zaiena kontatzeko. Gerta liteke komunikatzeko zailtasunak izatea; lotsa, kulpa edo estigmatizazioa sentitzea; haien esperientzia tratu txarrekin ez lotzea; egoeraren erantzuleak edo erantzuleek behartuta egotea edo haiekin lotuta egotea; edo kontatzeak ekar ditzakeen ondorioen beldur izatea (adibidez, ez sinestea, familiarentzako ondorio negatiboak, bereizketa). Hala, posible da egoerari buruz galdetzean hurrek ez onartzea zer gertatzen zaien, eta ez nahi izatea beste pertsona batzuek jakin dezaten.

Orokorrean, gertatzen ari denaz ohartarazten duten hainbat adierazle edo seinale izaten dira, eta horien bidez detektatzen dira babesgabetasun-egoerak. Hurrekin eta familiarekin lan egiten duten profesionalek adierazle horiek ezagutzen badituzte eta identifikatzen badituzte, gai izango dira laguntza-prozesu bat martxan jartzeko. Orokorrean, aldi berean ematen diren hainbat adierazle kontrastatuta hautematen da egoera, ez adierazle bakarra.

Hiru adierazle mota bereizten dira:

1. Gurasoen jokabidea.
2. Haurraren adierazle fisikoak.
3. Haurraren portaera-adierazleak.

Garrantzitsua da kontuan hartzea hurrengan beha daitezkeen adierazleak babesgabetasun-egoera posible baten seinaleak baino ez direla, eta haien presentziak ez duela ezinbestean esan nahi egoera hori gertatu dela. Beste zailtasun batzuen ondorioa edo isla izan daitezke, hala nola arazo organikoak, familiako aldaketak, pertsona maiteen galera, edo egoera desegonkor dezaketen beste zirkunstantzia batzuk. Dena den, **haur batek arazo emozional larriak edo denboran luzatzen diren arazo emozionalak erakusten baditu, edo jarrera- edo portaera-aldaketa bortitzak baditu, kezkatzeko moduko seinaleztat hartu behar dira beti.**

GARRANTZITSUA: Haur bat haren familian babesgabetasuna pairatzen ari dela erakusten duen edozein seinale BETI kontuan hartu behar da.

Haurrei zer geratzen zaien esaten laguntzea oso lan delikatua da. Profesional batek haur batekiko kezka badu, harengana gertura daiteke eta galde-tu, baina betiere samurtasunez, ulertzeko eta laguntzeko jarrerarekin, eta galdera irekiak eginez. Haurrak babesgabetasun-egoera posible baten berri ematen badu, inoiz ez du arakatzen jarraitu behar. Une horretan, Gizarte Zerbitzuei jakinarazi behar diela azaldu behar dio, eta hortik aurrera zer gertatuko den.

TRATU TXAR FISIKOAK:

Tratu txar fisikoen barruan sartzen dira hurrek kalte fisiko nabarmenak jasaten dituzten egoerak edo jasateko arriskuan dauden egoerak, gurasoen erasoan zuzeneko ondorio gisa. Erasoak honelakoak izan daitezke: eskuarekin edo gorputzeko beste atal batekin emandako kolpeak (adibidez, ostikoak), objektuekin emandako kolpeak, hozkadak, atximurkadak, erredurak, etab.

Adin txikikoak diren haurrak edo desgaitasunen bat duten haurrak dira zaurgarrienak tratu txar fisikoen aurrean, fisikoki ahulagoak direlako eta ezin dutelako arriskutik ihes egin.

Erasotzailearen nahitasuna ez da kontuan hartzen jarrera jakin bat tratu txar fisikoa den edo ez erabakitzeko orduan. Hain zuzen ere, kasu gehienetan, tratu txarraren helburua ez da hurrari min egitea, egoera jakin bat kontrolatzea, frustrazioa edo haserrea adieraztea edo tentsioa deskargatzea baizik. Nolanahi ere, istripuzko lesioetatik bereizi behar da; lesio horiek ohikoak izan daitezke ezaugarri jakin batzuk dituzten haurrengan, eta ez dira tratu txar fisikoen ondorioak.

Haur batek tratu txarrak jasan dituela erakusten duten adierazlerik argienak lesio fisikoak dira. Dena den, askotan, zaila izaten da ziurtasun osoz interpretatzea, eta istripuzko lesio normalekin nahas daitezke.

ISTRIPUZKO LESIOAK ETA ISTRIPUZKOAK EZ DIRENAK EZBERDINTZEA

Hurrek, orokorrean, hematoma eta zauriak egiten dituzte jolastean. Gorputzeko atal edo hezur irtenetan handiagoa da min hartzeko probabilitatea, hala nola belaunetan, ukalondoetan, besaurreetan edo kopetan. Ehun biguneko eremuak ez dira mintzen egoera horietan, hala nola masailak, ipurmasailak eta izterrak. Gainera, hurrek istripuz egiten dituzten hematomek, normalean, ez dute forma zehatza izaten, esaterako,

esku batena, gerriko batena edo helduen hortzena. Marka mota horiek tratatu txar fisikoak adierazten dituzte, askoz ere neurri handiagoan.

Hematomen kasuan ez bezala, sabelean edo buruan (bereziki zaugarriak diren gorputzeko atalak) emandako kolpeak askotan ez dira hautematen, kalteak barrukoak direlako. Sabeleko kalteek hantura, biguntasuna eta gonbitoak eragin ditzakete. Buruko kalteek hantura sor dezakete garunean, zorabioak, konortea galtzea, erretina-askatzea, eta heriotza ere bai. Barne hartzen du “astindutako haurraren sindromea” ere, haur bat modu bortitzean edo indarrez astintzearen ondorioz gertatzen dena. Ekintza horrek garuneko eta begietako lesio sendaezinak eragin ditzake, eta heriotza ere bai. Orokorrean, bi urtetik beherako haurren kasuan gertatzen da, baina helduagoetan ere beha daiteke.

ISTRIPUZKOAK EZ DIREN LESIOEN EZAUGARRIAK

- Kokapena, antzinatasuna, forma (ikus ondorengo koadroa)
- Informatzaile ezberdinen kontakizunak bat ez etortzea, daturik ez izatea
- Lesio mota ezberdinen konbinazioa
- Lesioak ez datoz bat haurraren garapen ebolutiboarekin
- Gehiegizko atzerapena medikuaren kontsultan
- Beste arreta-zentro batzuetan tratatutako aurretiazko “istripuen” aurrekariak (hausturak, zauriak)

ISTRIPUZKO LESIOEN ETA ISTRIPUZKOAK EZ DIREN LESIOEN KOKAPENA, ANTZINATASUNA ETA FORMA

Kokapena

- **Istripuzko lesioak**

- Irtenguneetan edo hezurren ertzetan.
- Normalean ez dira bi aldetakoak izaten.

- **Istripuzkoak ez diren lesioak**

- Gorputzeko eremu ezkutuetan.
- Hezurren irtenguneekin zerikusirik ez duten lekuetan (sabela, genitalak, bizkarra, ipurdia, eskugainak, belarriak).
- Patroi jakinik gabekoak. Gorputzaren bi aldeetan beha daitezke.

Antzinatasuna

Hematomen ohiko bilakaera: 1-2 egun: urdin-gorrixka; 3-5 egun: urdin-purpura; 6-7 egun: berdea; 8-12 egun: horia; 13-28 egun: sendatuta

- **Istripuzko lesioak**

- Lesio guztiak une ebolutibo berean daude.

- **Istripuzkoak ez diren lesioak**

- **Sendatze-etapa ezberdinetan daude lesioak.**

Forma

- **Istripuzko lesioak**
 - Normalean ezin da identifikatu zer objektuk eragin zituen
- **Istripuzkoak ez diren lesioak**
 - Lesioa eragin zuen objektuaren forma izaten dute: hatzak, hatz-koskorak, gerrikoak, kableak, hebillak, pertxak, eskuilak, zapatak, sukaldeko tresnak, oholak, hortz-arkuak.

HAURRAREN ADIERAZLE FISIKOAK

- Hausturak. Sudurra edo masailezurra hautsita izatea, edo hezur luzeak espiralean haustea.
- Mailatuak edo hematoma, ezohiko kopuruetan, ezohiko formarekin edo ezohiko lekuetan. Mailatuak edo hematoma aurpegian, ezpainetan edo ahoan, soinaren eremu zabaletan, bizkarrean, ipurmasailetan edo izterretan; orbaintze fase ezberdinetan edo normalak ez diren formekin, multzokatuta, edo eraso egiteko erabilitako objektuaren forma edo markekin.
- Objektu zehatzen, zigarroen edo puruen formako erredurak, edo ur berotan sartuta eginda dauden adierazleak dituzten erredurak.
- Zauriak edo urratuak ahoan, ezpainetan, hortzoietan eta begietan, edo besoen, hanken edo soinaren atzeko aldean.
- Barne-lesioak, garezurra haustea, garuneko kalteak, hematoma subduralak, asfixia eta itolarria.
- Ebakiak edo sastadak.
- Pertsonen hozkaden markak –helduen hortz-arkuaren formarekin– behin eta berriz egindakoak.

HAURRAREN PORTAERA-ADIERAZLEAK

- Oso beldurtia beste haur batzuek negar egiten dutenean.
- Erasokor agertzen da, desafiatzaile, aurka egiteko jarrerarekin.
- Pertsona helduekiko beldur dela dirudi. kontaktu fisikoa baztertzen du edo ihes egiten dio.
- Jarrera suntsitzaileak erakusten ditu bere buruarekiko edo beste pertsona batzuekiko.
- Oldarkortasuneko eta mendekotasuneko muturreko jarrerak.
- Aita edo ama eskolara bila etortzen denean, behin baino gehiagotan, beldur dela dirudi edo baztertu egiten du.

- “Istripuak izateko joera” duela esaten da.
- Eguraldiarekin bat ez datorren arropa izan dezake jantzita, lesioak ezkutatzeko (adb., mahuka luzeak eta praka luzeak udan).
- Behin eta berriz min fisikoa duela esaten du (adibidez, buruko mina edo sabeleko mina), arrazoi argirik gabe.
- Etxean fisikoki erasotzen dutela esaten du.

GURASOEN PORTAERA-ADIERAZLEAK

- Ez dute inolako azalpenik ematen haurraren lesioaren gainean, edo azalpena ez da logikoa, ez da sinesgarria, kontraesankorra da edo denboran aldatu egiten dute.
- Aitzakia ugari jartzen dituzte haurraren lesioa azaltzeko, edo garrantzia kentzen saiatzen dira.
- Lesioa ezkututzen edo lesioa nork eragin duen ezkututzen saiatzen dira.
- Haurrarentzako osasun-arreta bilatzeko orduan atzeratu egiten dira.
- Osasun-zentro ezberdinetara joaten dira, txandaka.
- Etengabe haurrari egozten diote errua.
- Diziplina gogorra erabiltzen dute, haurraren adinarekin, egindako akatsarekin eta haurraren ezaugarriekin bat ez datorrena.
- Oldarkor ageri dira, eta haien bulkada oldarkorrek kontrolatzeko zailtasunekin.

El **castigo físico** no puede considerarse una práctica aceptable de disciplina o control de la conducta de los niños y niñas.

La legislación actual define como situación de Riesgo “la utilización del castigo habitual y desproporcionado y de pautas de corrección violentas que, sin constituir un episodio severo o un patrón crónico de violencia, perjudiquen el desarrollo del niño o niña” (art. 17 LO 1/1996, en la redacción dada por la Ley 26/2015 y la LO 8/2021).

ARDURAGABEKERIA

Arduragabekeriak barne hartzen du haurraren oinarrizko behar fisikoak, segurtasun-beharrak, behar kognitiboak edo emozionalak ez artatzea eta asebetetzea (ikus “6-12 urte arteko haurren oinarrizko beharrak: Asebetetzearen adierazleak” eranskina).

Garrantzitsua da une jakin bateko arreta-faltarekin lotutako jarrerak eta arduragabekeria bereiztea. Muturreko kasuetan salbu, jarrera jarraituei edo ohiko jarrerei egiten die erreferentzia arduragabekeriak.

Tratu tratu txar fisikoen kasuan bezala, adin txikieneko haurrak dira zaugarrienak arduragabekeriaren ondorio negatiboen aurrean. Babesgabetasun mota ohikoena da, eta itxuraz “deigarriagoak” diren beste mota batzuk (adibidez, tratu txar fisikoak) bezain kaltegarria edo kaltegarriagoa da hurren garapenerako.

Gurasoen nahitasuna ez da kontuan hartzen arduragabekeria izan den edo ez erabakitzeke orduan. Kasu gehienetan, gurasoek ez dute haurrari kalte egiteko asmorik. Ezagutzarik, trebetasunik, laguntzarik edo heldutasunik ez izatea, pobrezia edo arazo psikologikoak dira egoera mota hauen ohiko arrazoietako batzuk.

BEHAR FISIKOEKIKO UTZIKERIA

Guraso batek haren semearen edo alabaren zaintza fisikoarekin lotutako beharrak artatzeko duen modua babesgabetasuntzat hartuko dugu kalte nabarmena eragiten badio edo eragin badietzaioke. Kasu batzuk baloratzea zaila izan daiteke (adibidez, elikadura-ohitura minoritarioak, sendagai alternatiboak edo antzekoak erabiltzen dituzten gurasoak), eta osasun arloko profesionalen balorazio espezializatu batek erabakiko du zer eragin duten edo izan dezaketen ohitura horiek haurraren gain.

Behar fisikoen arretarekin lotutako arduragabekeriak bost arlori eragin diezaike:

1. Elikadura

Elikadura arloko arduragabekeria gertatzen da haur bati ematen zaion elikaduraren kantitatea edo kalitatea (ekarpen nutritiboa) desegokia izatearen ondorioz haurrak desnutrizioa, deshidratazioa, intoxikazioa, gehiegizko pisua edo haren osasunarentzat arrisku larritzat har daitezkeen beste arazo batzuk agertzen baditu. Haurrak osasun-arazorik ez izan arren, medikuak berriaz dieta zuzendu behar dela adierazi eta halakorik egiten ez bada, egoera hori ere arduragabekeriatzat jotzen da. Egoera horiek bereziki larriak izan daitezke haur horiek osasun-arazoak dituztenean.

2. Osasun fisikoaren zaintza

Osasun fisikoaren zaintzarekin lotutako arduragabekeriak barne hartzen ditu honako egoera hauek:

- Haurrak tratatu beharreko lesio, zauri edo gaixotasun bat du, baina ez da zainketa medikorik jasotzen ari, beranduegi eraman dute medikuarenera, edo

medikuarengana eraman dute (gurasoen ekimenez edo ikastetxeak esandakoa betez), baina ez dira ari tratamendua behar bezala jarraitzen.

- Etxeko norbaitek gaixotasun kutsakor bat du, eta ez dira beharrezko neurri higienikoak eta osasun-neurriak hartzen ez kutsatzeko edo probabilitatea murrizteko. Arduragabekieriaz hartzeko, egoera horrek mehatxu larria izan behar du haurren osasunarentzat, edo behin baino gehiagotan gaixotu behar du egoeraren ondorioz.
- Haurrak ageriko nekea eta jarrera-nahasmenduak ditu (adibidez, suminkortasuna, pasibotasuna, kontzentratzeko zailtasunak), familiako ohitura eta ordutegien ondorioz ez duelako behar adinako atsedenik hartzen edo ez duelako behar adina lo egiten.

Jarraipen pediatrikoa egitea eta txertoak jartzea ez da derrigorrezkoa; gomendioak baino ez dira. Horien gabezia, bere horretan, ez da arduragabekeria, behar bereziak dituen haur bat denean salbu.

3. Jantziak

Egoera hauetan, baliabideak izan arren, haurrak ez du haren adinean normalak eta beharrezkoak diren jarduerak egiteko moduko arroparik, edo fenomeno atmosferikoetatik babestuko duen arroparik.

4. Higiene pertsonala

Higiene pertsonalarekin lotutako arduragabekeria-kasuetan, higiene-falta nabaria errepikatzen da behin eta berriz (adibidez, haurrak ez du bainurik hartu edo ez da dutxatu hainbat astetan; usain handia du gorputzean edo ahoan; arropa zikina darama, ziur asko, kendu ezin diren orbanekin; ilean janari-hondarrak edo gorozkiak), eta, ondorioz, haurrak:

- a. tratamendu medikoa behar izan duen gaixotasun edo arazo fisikoren bat izan du, edo
- b. arazoak izan ditu berdinekiko harremanetan, haren higiene-faltarengatik baztertu egin dutelako.

5. Etxebizitzako baldintza higienikoak edo bizigarritasun-baldintzak

Etxebizitzako baldintza higienikoekin lotutako arduragabekeriak barne hartzen ditu etengabe zikinkeria handia pilatua duten egoerak. Muturreko kasuetan, deskonposizio-egoeran dauden hondakin organikoak pilatzen dira; horiek, intsektuen, parasitoen edo

haurrei gaixotasunak transmititu edo lesioak larriak eragin diezazkieketen beste animalia batzuen izurriteak eragin ditzakete.

Barne hartzen dira egoera arriskutsuan dauden etxebizitzak, edo gutxieneko ekipamendurik eta zerbitzurik ez dutenak (ur korrontea, berogailua, elektrizitatea, sukaldeko ekipamendua, komuna).

SEGURTASUN-BEHARREKIKO UTZIKERIA

Segurtasun-beharrei arreta jartzea bereziki garrantzitsua da adin txikienekoen kasuan, haurrek etengabe gainbegiratzea eta babes-neurriak behar baitituzte, ez dutelako arriskua hautematen edo oso modu mugatuan hautematen dutelako, eta arriskuen aurrean euren burua babesteko gaitasun oso txikia dutelako.

Segurtasun-beharrekiko arduragabekeriak hiru eremu hartzen ditu barne:

1. Etxeko segurtasun fisikoa eta arriskuen prebentzioa

Haurrak istripu larri bat izateko arriskua du, etxean baldintza arriskutsuak daudelako (adibidez, instalazio elektrikoa egoera txarrean, elementu arriskutsuak eskueran), eta, gainera, haurra ez dute gainbegiratzen; edo haurrak istripu larri bat izateko arriskua du jarduera oso arriskutsuetan parte hartzen duelako (adibidez, ausarkeriaz gidatzea).

2. Gainbegiratzea

Gainbegiratzearekin lotutako arduragabekeriak honako hauek barne hartzen ditu:

- Haurra bakarrik uzten da argi eta garbi gaitasunik ez duen pertsona batekin (adb., hamabi urtetik beherako beste haur batekin, argi eta garbi arduratsua ez den nerabe batekin, edo gaitasunik ez duen heldu batekin), egoera arriskutsu bat gertatuz gero heldu bat garaiz iritsi ahal izateko segurtasunik gabe.
- Aurretik hurrenganako indarkeria edo sexu-abusuen historia duen pertsona baten ardurapean uzten da haurra.
- Haurra zainduko duen inor gabe uzten da, haren bizitzarentzat oso arriskutsuak izan daitezkeen egoeretan; edo ez da prebentzio-neurririk hartzen arrisku oso larrietatik urruntzeko.
- Gurasoek ez dute haurra behar adina gainbegiratzen, eta ohikoa izaten da non dagoen eta zer egiten ari den ziur ez jakitea.

3. Beste pertsona batzuek egindako tratu txarren edo abusuen aurrean babestea

Egoera hauetan, hirugarren pertsona batek tratu txarrak eman dizkio haurrari, edo eraso larriak egin dizkio, edo indarkeria sexuala erabili du haren aurka, eta gurasoek ez dute gaitasunik erakutsi haurra babesteko –baliteke egoera hori erraztu izana ere– eta egoera berriro errepikatzea saihesteko.

BEHAR KOGNITIBOEDIKO ARDURAGABEKERIA

6 eta 12 urte arteko haurren estimulazio kognitiboarekin lotutako beharrak, neurri handi batean, eskoletan bertan asetzen dira. Baina familiaren rola ere garrantzitsua da behar mota horiekiko arretari dagokionez; arlo honetan arduragabekeria dagoela esan daiteke familiako pertsona helduen *ohiko* patroiak honako hauek barne hartzen dituenen:

- Haurrari haren trebetasun kognitiboak garatzera edo haren estimulazio-beharrei eta ikasteko beharrei erantzutera bideratutako esperientzia aberasgarriak edo hezitzaileak ez eskaintzea.
- Haurrak lorpen ebolutibo normalak lortzeko egiten dituen saiakerak oztopatzea edo horrekiko oso interes txikia agertzea (adibidez, hizkeraren garapena edo haurraren gaitasun fisiko edo intelektualen garapena ez sustatzea, haren adinerako egokiak diren jolasteko edo ikasteko tresnak ez ematea, haurrak jolasteko edo jarduera ludikoak egiteko duen beharra ez onartzea, haren galderari erantzutea, estimulu berririk ez aurkeztea).
- Haurrari jostailuekin, jolasekin edo telebistarekin bakarrik ikasten edo entretenitzen uztea, apenas gidarik gabe.
- Haurrarekin jolasik edo jarduera ludikorik ez partekatzea.
- Haurrarekin oso komunikazio mugatua izatea, komunikazio zuzentzailea (akatsak nabarmenduz), eta ez eraikitzailea (arrazoituz eta bide egokia erakutsiz).

BEHAR EMOZIONALEKIKO ARDURAGABEKERIA

Haurraren behar emozionalari arretarik ez jartzea da haurraren ongizatea eta garapena gehien kaltetzen dituen esperientzietako bat. Kasurik larrienetan, ondorioak betiko izan daitezke.

Ez dira gurasoak haurren behar emozionalari erantzun diezaieketen bakarrak. Ohikoa da familiako beste kide batzuek ere rol garrantzitsua izatea zentzu horretan,

eta horiek gurasoek izan ditzaketen gabeziak konpentsa ditzakete une jakin batean edo luzaroan. Arduragabekeria-egoerak gertatzen dira (a) gurasoen jokaerak haurraren behar emozionalei erantzuten ez dienean, eta (b) familia-ingurunean ez dagoenean behar horiei arreta egokia emango dien eta gurasoen gabeziak konpentsatuko dituen figura alternatiborik.

Behar emozionalekiko arduragabekeriak barne hartzen du hiru behar motari arretarik ez ematea:

1. Interakzioa eta maitasuna

Behar horiekiko arduragabekeria gertatzen da etengabe edo normalean honako hauek gertatzen badira:

- Haurraren interakziorako saiakera eta beharrei ez zaie jaramonik egiten, eta haurrerekiko atxikimendurik eza, axolagabetasuna edo inplikazio-falta erakusten dira.
- Haurrerekiko interakzioan ez da emoziorik eta maitasunik erakusten, ez fisikoki, ez hitzez.
- Haurrak arreta bereganatzeko egiten dituen saiakerei ez zaie jaramonik egiten. Ez du laguntzarik jasotzen behar duenean, edo gida bat edo orientazioa behar dituen.

2. Arazo emozional larriekiko arreta

Haurrak arreta medikoa behar duenean ez ematea arduragabekeria den moduan, arduragabekeria da arazo emozional larriak dituen tratamendu psikologikoa edo psikiatrikoa jasotzeko beharrei jaramonik ez egitea ere. Arlo honetako arduragabekeriak barne hartzen du behar duen tratamendua ez ematea, tratamendua emateko orduan asko atzeratzea, edo haurra artatzen duten profesionalak ezarritako jarraibideak ez jarraitzea.

3. Arauak, mugak eta balio moral positiboen transmisioa

Arlo honetako arduragabekeriak barne hartzen du haurraren jokabidea ez arautzea, mugatzea edo bideratzea, guztiz edo partzialki; edo arau, muga eta orientabide horiek egokiak ez izatea (estuegiak edo malguegiak izateagatik, edo sendotasunik ez izateagatik). Egoera horrek jokabidearekin eta egokitzapen pertsonalarekin, familiarrarekin edo sozialarekin lotutako arazo larriak eragin dizkio haurrari; edo arazo horiek izateko arrisku larriari jarri du.

LABURPENA: ARDURAGABEKERIAREN ADIERAZLE POSIBLEAK

Etengabe edo normalean honako adierazle hauek agertzen badira, arduragabekeria posible baten susmoa izan behar da:

Haurraren adierazle fisikoak

- Haurraren adinarekin espero daitekeena baino pisu edo altuera askoz baxuagoa, arrazoi organikorik gabe
- Eguraldirako egokiak ez diren edo egoera oso txarrean dauden arropak edo oinetakoak
- Higiene pertsonal desagokia
- Azal ezkatatsua begien azpian eta begi-zuloak
- Nekea edo ahulezia; lo-faltaren sintomak
- Tratatu gabeko arazo medikoak, edo sendatzea kostatzen zaien arazoak, agindutako tratamendua ez delako modu egokian jarraitzen
- Etxean edo kalean behin eta berriz izandako istripuengatiko lesioak
- Betaurrekoak edo protesia behar ditu, baina ez daramatza

Haurraren portaera-adierazleak


- Muturreko portaera edo bat-bateko jarrera-aldaketak
- Ez du etxera itzuli nahi edo axolagabe agertzen da gurasoekiko
- Muturreko gosez jaten du, edo, gose izan arren, ez da jateko gai
- Janaria lapurtzen edo kentzen du
- Atzerapen handia garapen motorrean, hizkuntzaren garapenean edo autonomiaren lorpenean
- Eskolara ez joatea edo berandu sartzea, ohikotasunez
- Pertsona ezezagunei gehiegizko maitasuna erakustea, bereizi gabe
- Helduekiko gehiegizko mendekotasuna
- Bakarrik egoteko joera handia.
- Etxean bakarrik uzten dutela edo gaueko ordu txikiak arte esna egoten dela esaten du
- Nekea, loguraren sintomak

Gurasoen portaera-adierazleak

- Baliabide propiorik edo laguntzarik ez dutenez, seme-alaben beharrei ezin dietela erantzun adierazten dute.
- Haiek ardurek eta egoera pertsonalak gain hartzen diete.
- Haurrak arreta eskatzen duenean, beharrak dituzenean edo arazoak dituzenean axolagabe edo pasibo agertzen dira
- Drogak edo alkohola kontsumitzen dituztela dirudi.
- Apatiko edo deprimituta daudela dirudi.
- Modu irrazionalan edo adoretuan jokatzeko dute.
- Haien beharrak haurraren beharren aurretik jartzen dituzte.
- Ohiko atzerapenak haurra eskolan sartzeko eta handik jasotzeko ordutegietan.
- Ikastetxeak haurraren beharretako adierazleengatik inguruko kezka agertzen duenean edo gomendioak egiten dituzenean, garrantzia kentzen diote edo arduratuko direla esaten dute, baina ez dute egiten.

SEXU INDARKERIA

Sexu-indarkeriaren barruan sartzen da erasotzaileak haur batekin duen kontaktu edo sexu-portaera mota oro helburua erasotzailearen beharrak betetzea edo asetzea denean. Pertsona heldu batek edo 18 urtetik beherako batek egin dezake, biktima baino nabarmen helduagoa bada. Barne hartzen ditu haurra edozein sexu-jardueratan parte hartzea animatzea, prostituzioaren edo legez kanpoko beste sexu-praktika batzuen bitartez haurra esplotatzea eta haurrak material eta erakustaldi pornografikoak



ekoizteko erabiltzea. Sexu-indarkeriaren barruan sartzen dira kontatu fisikoarekin eta gabe egindako sexu-jarduerak; esaterako, penetrazioa edo penetrazio-saiakera, aho-sexua, ukituak, voyeurismoa, exhibizionismoa, masturbazioa edo helburu didaktikorik ez duten bestelako sexu-jarduera esplizituak.

Haurrei sexu-abusuak egiten dizkieten pertsonak haurren inguruko pertsonak izan ohi dira gehienetan. Horregatik, indar fisikorik erabili gabe egin ohi dute, erasotzaileek haurrarekin duten konfiantzazko lotura, autoritatea edo boterea erabiltzen baitute. Biktimak eta erasotzaileak talde etniko, erlijioso eta sozio-ekonomikoetako guztietakoak dira. Biktima gehienak neskak izan ohi diren arren, hori pairatzen duten mutikoen kopurua ere handia da. LGTBI kolektiboaren parte diren haurrek ere arrisku handiagoa dute sexu-indarkeria pairatzeko.

Sexu-indarkeriaren barnean daude haurraren sexualitatea eta bere geroko garapena kaltetzen duten edo kaltetu dezaketen beste portaera batzuk. Horien artean daude hauek:

- Haurraren sexu-orientazioa eta genero-identitatea edo sexu-ezaugarriak ez onartzea eta arbuiatzea, baita adinerako eta egoerarako ohikoak diren haurren sexu-adierazpenak ere.
- LGTBI kolektiboaren parte diren haurrei aurkako- edo bihurtze-terapiak ezartzea.
- Ezkontzak hitzartzea, haurrak nahi ez izan arren.

En Euskadi contamos con una herramienta de screening promovida por el Gobierno Vasco para ayudar a valorar si los indicadores observados en un niño o niña pueden fundamentar una sospecha de violencia sexual.

La herramienta está accesible en <http://screening.agintzari.com/screening/>

Haurraren adierazle fisikoak

- Lesioak genitaletan edo uzkian.
- Odola botatzea genitaletatik edo uzkitik.
- Genitaletako infekzioak edo sexu bidezko transmisioak (sifilisa, blenorragia, jaiotzetik ez zeukan HIESA, kondiloma akuminatuak edo genitaletako garatxoak, baginako fluxu infekziosoa eta haurren flora arruntean ohikoak ez diren germenak dituena: klamidia, trikomonak).

- Oinez ibiltzeko, korrika egiteko edo eserita egoteko zailtasunak edo mina.
- Gernubideetako ohiko infekzioak.
- Arazoak mikzioarekin.
- Haurdunaldia.

Haurraren portaera-adierazleak

- Adinerako ohikoak ez diren ezagutzak, jakin-mina edo sexu-portaera izatea (gai sexuarekiko gehiegizko jakin-mina, esaterako, beste haur batzuekiko edo helduekiko jokabide seduktorea izatea).
- Portaera hipersexualizatua edo autoerotikoa izatea.
- Loaren nahasmenduak izatea (amesgaiztoak, gaueko izuak).
- Portaera atzerakoiak izatea.
- Ezagutzen ez dituzten pertsona edo egoerekiko izu adierazezina izatea.
- Gizarte-uzkurtasun handia izatea.
- Mesfidantza handia, estigmatizazio-sentimenduak, autoestimu baxua, lotsa, depresioa, antsietatea, gorputzarekiko arbuioa eta agresibitatea izatea.
- Bat-batean dirua izatea.
- Lagun "heldu" berri bati erreferentzia egitea.

ADI: Haurrak sexu-indarkeria pairatu duela edozein modutara adierazten badu, serioski hartu behar dugu kontuan BETI eta berehala jakinarazi behar diegu gizarte-zerbitzuei.

Horrelako jakinarazpen baten ondoren jarraitu beharreko prozesua bereziki delikatua da. Hezkuntza arloko langileek haurrari entzun behar diote, eta ulermena eta babesa adierazi. Ez diote galderarik egin behar informazioa lortzeko, horrek berriro biktimizatzea eta kontakizuna kutsatzea eragin baitezake.

Para más información sobre cómo actuar en estos casos, véanse los materiales formativos elaborados por Save the Children (2020) para profesionales del sector educativo <https://www.savethechildren.es/manual-para-prevenir-violencia-sexual-infancia>

TRATU TXAR PSIKIKOAK

Tratu txar psikikoak dira gurasoek hurrekiko izaten dituzten portaera negatibo edo interakzio suntsitzaileak, modu jarraituan edo etengabe egiten dituztenean. Jokabide horiek kalte psikiko larriak eragiten dizkiete hurrei edo horiek pairatzeko arriskuan jartzen dituzte. Era berean, barnean sartzen dira genero-indarkeria edo familia barruko indarkeria pairatzea, edo gurasoen arteko liskarretan edo gurasoen eta elkarbizitza-nukleoaren parte diren beste senitarteko batzuen arteko liskarretan haurrak sartzea. Tratu txar psikikoak beste babesgabetasun mota batzuekin lotuta egon ohi dira.

Garrantzitsua da gurasoen portaera kaltegarriak eta tratu txar psikikoak bereiztea. Gurasoek portaera desagokiak edo ez egokienak izan ohi dituzte sarri seme-alabekin eta horrek kalte emozionalak sor diezazkiekete. Baina horiek ez dute zertan tratu txar psikikoak izan. Tratu txar psikologikoak izango da portaera horiek ohiko harreman-eredua badira.

Tratu txar psikikoen barruan daude hurrekiko jarrera eta portaera hauek:

1. Arbuioa

Hitzezkoak edo hitzekoaz ez diren ekintzak dira eta haurra baztertu edo umiliatzen dute, esaterako:

- Gutxiestea, iraintzea, umiliatzea eta aurkako portaera edo baztertzailea adierazten duten jardun ez fisikoak.
- Emozio arruntak adierazteagatik lotsaraztea eta barregarri uztea (hala nola afektua, mina edo tristura).
- Beti kritikatzeko eta zigortzeko hautatzea.
- Publikoki umiliatzea.
- Familiako arazoen errua egozte.

2. Izutzea

Barne hartzen du haurrari izu handia eragingo dioten ekintzekin mehatxatzea. Baita kalte fisiko larriak eragitearekin hitzez mehatxatzea ere.

3. Bakartzea

Berdinekin edo beste pertsona heldu batzuekin interakzioa izateko eta komunikatzeko beharrak asetzeko aukerak ukatzea haurrari, bai etxe barruan, bai kanpoan.

4. Autonomia mugatzea

Adinerako egokia den autonomia eta parte-hartze mailara iristeko haurra mugatzea edo eragozte, bilakaeraren aurkakoak diren jokaerak sustatuta eta onartuta. Barruan sartzen dira gehiegizko inplikazioa, intrusioa edo haurra gehiegi menderatzea, infantilizazioa edo parentalizazioa edo helduendesioak betetzeko haurrak erabiltzea.

5. Gehiegizko exijentzia

Haurrari gehiegizko presioa jartzen diete lorpenei (akademikoak, fisikoak, portaerazkoak, beren gain hartu beharreko erantzukizunak eta abar) edo bete beharreko ardurei dagokienez. Horiek haurraren adinerako eta ezaugarrietarako aukeren eta gaitasunen oso gaintik egon ohi dira edo, haiek lortzeko moduan badira ere, estres oso handia eragiten diete eta bere bilakaeraren unerako garrantzitsuak diren beste behar edo jarduerak nabarmen mugatzen dituzte.

6. Hurbileko etorkizuna iragartzeko ezintasuna, ezegonkortasuna eta segurtasunik eza transmititzea

Ahozko jokabideen edo mezuen bitartez, haurrari bere hurbileko etorkizunaren funtsezko alderdien inguruko segurtasunik eza transmititzen diote (esaterako, gurasoen urruntasuna edo gurasoak betirako desagertuko direla).

7. Gurasoen arteko liskarretan eta gurasoen eta elkarbizitza-nukleoaren barruko beste senideen arteko liskarretan haurrak sartzea

Egoera horiek harremanak edo familiak oso modu bortitzean banatzen direnean gertatu ohi dira. Gurasoek haurrak aktiboki sartu ohi dituzte liskarretan, haien jokabideen eta jarreraren bitartez.

8. Genero-indarkeria, bikoteko indarkeria edo familia barrukoa pairatzea

Gurasoen artean edo etxebizitzan bizi diren kideen artean izandako indarkeria fisikoaren edo ahozko indarkeria larriaren kasuen eraginpean egotea. Genero-indarkeria barne. Eraginpean egoteak esan nahi du haurrak zuzenean ikusi dituela jazoera horiek edo argi eta garbi hauteman dituela.

Tratu txar psikikoak dira ziurrenik hautemateko zailenak diren babesgabetasun-egoera motak, besteak beste, gehienetan ez dagoelako adierazle fisikorik. Agertu daitezkeenetako batzuk dira:

El maltrato psíquico es probablemente una de las tipologías de desprotección de más difícil detección, entre otras cosas porque en general no se manifiesta en indicadores físicos. Algunos de los que pueden aparecer incluyen:

Haurraren adierazle fisikoak

- Elikadura-arazoak
- Lo egiteko arazoak
- Enuresia, enkopresia
- Hitz egiteko atzerapenak
- Kexa somatikoak izatea (buruko mina, sabelekoa, goragalea) arrazoi organikorik gabe

Tratu txar psikikoak pairatzen dituzten hurrek portaera-adierazleak izan ohi dituzte maiz. Gehien ematen direnetako batzuk dira hauek:

Haurraren portaera-adierazleak

- Bere buruari min emateko jokaerak
- Atzerapenak garapenean
- Muturreko jokabideak (esaterako, oso haserre edo pasibo). Sobera atsegín edo pasibo edo oso eskatzaile, erasokor eta arreña deitu nahian
- Arrisku-portaerak
- Animaliekiko ankerkeria
- Helduekiko gehiegizko mendekotasuna
- Izu orokorra edo gurasoetako batenganakoa
- Beste haur edo helduekin interakzioa izatea arbuatzea
- Frustrazioaren tolerantzia baxua
- Bere buruan konfiantza gutxi izatea, autoestimu baxua
- Agresibitatea edo arrazoirik gabeko kasketak
- Espresiorik gabeko aurpegia izatea, pasiboa ia denbora guztian
- Adinerako egokia ez den jarrera izatea: helduegia edo umeegia

BESTE MOTA BATZUK

1. Haurren jokabidea kontrolatzeko gurasoen ezintasuna

Haurrak pertsonalki, familian, gizartean edo eskolan egokitzeko dituen arazo esanguratsuak sartzen dira multzo honetan, eta portaera arazotsuak adierazi ohi ditu bai etxe barruan, bai kanpoan (esaterako, ihes egitea, jokabide antisoziala, beste pertsona batzuei eraso egotea, arrisku-portaerak -teknologiaren erabilera barne-, droga edo alkohola kontsumitzea, eskola absentismoa). Gurasoak ez dira gai egoera kontrolatzeko, eta jokabidea bideratu, zuzendu eta kontrolatzeko. Egoera hauek ere eman daitezke gurasoak egoera kontrolatu nahi dutenean eta ahalegintzen direnean, baina egiteko gai ez direnean.

2. Tratu desegokia

Luzeegiak edo gogorregiak diren zigorrak erabiltzean datza, kulturalki onartuta dauden mugak gainditzen dituztenak eta haurra istripu bat, jazoera larri bat, gaixotasun bat edo egonezin eta tentsio handia pairatzeko arriskuan jartzen dutenak. Esaterako, haurra propio jan edo edan gabe uztea, konfinatzea edo fisikoki mugatzea, edo nora joan eduki gabe etxetik botatzea. Hemen sartzen dira honako hauek ere: haurrei drogak, alkohola edo errezetatu eta gomendatu gabeko farmako arriskutsuak ematea, haurrak gainerakoak gogaitu ez ditzan, lo gera dadin edo antzeko beste helburu batekin.



3. Galbidean jartzea

Haurrak delituzko ekintzak egiteko erabiltzea edo jokabide antisozialak edo desbideratuak sustatzea, indartzea edo baimentzea, haurra ohartzen den edo ez axola izan gabe. Era berean, egoera batzuetan, haurrak egokitzapen-arazoak izaten ditu, bere familian jokabide antisozialeko edo delituzko portaerako eredu helduen eraginpean egotearen ondorioz, edo haurraren gorroto- eta mespretxu-sentimenduak eta beste pertsona batzuekiko jarrera eta jokabide bortitzak sustatzen dituzte, sexua, erlijioa, jatorria, arraza edo etnia, sexu-orientazioa, baldintza fisikoak edo antzekoak direla-eta.

4. Eskaletasuna

Haurra eskean aritzeko edo objektuak saltzeko erabiltzen dute -ohikotasunez edo tarteka, bakarrik edo beste pertsona baten laguntzaz- (esaterako, paper-zapiak, zuhaitzetako adarrak, postalak).

5. Lan-esplotazioa

Haurrak ohiko mugak gainditzen dituzten eta helduek egin beharko lituzketen etengabeko lanak (etxeko antolakuntzarekin lotutako zereginak izan ezik) egitera behartzen dituzte. Lan horiek eragin argia dute haurraren jardura eta behar sozialetan eta/edo eskolakoetan, eta (d) gurasoentzako edo familiarentzako irabazi ekonomikoak edo antzekoak lortzeko helburuarekin egiten dute.

6. Jaio aurreko tratatu txarrak

Haurdunaldian zehar alkohola edo beste droga batzuk gehiegi kontsumitzeagatik edo osasun-zaintzak edo medikoak ez jasoteagatik haurrak kalteren batekin jaio daitezke (esaterako, umeki alkoholikoaren sindromea, kalte neurologikoak, gaixotasunak edo arazo fisikoak, burukoak edo sentsorialak, lehenago jaiotzea edo pisu baxua).

7. Botere bidezko Münchhausen-en sindromea

Haurrak etengabe eramaten dituzte ospitaleratzera, edo azterketa edo tratamenduak egitera, asmatu dituzten edo gurasoek sortutako sintoma fisiko patologikoak dituztela argudiatuz (esaterako, substantziak sartuta).

8. Abandonua

Haurrak bakarrik uztea bila itzultzeko asmorik gabe, denbora baterako beste pertsona baten zaintzapean uztea eta adostutako denboraren ostean bila

ez itzultzea, haurrak ezagutzen ez dituen edo oso ezagunak ez dituen pertsonen zaintzapean uztea sarritan eta jasotzeko denborarik ez izatea edo ez aurreikustea, edo haurra ospitaletik edo egoitza-zentrotik ateratzerakoan zaintza bere gain ez hartzea

HOBE DA PREBENITZEA ZEIN DIRA FAMILIA ETA HAURRIK ZAURGARRIENAK?

Prebenitzeak arazoa agertu aurretik esku hartzea esan nahi du. Horrek haien ezaugarriak edo baldintzak direla eta haurren zaintzarekin eta arretarekin lotuta zailtasunak sortzeko zaurgarritasun-egoeran egon daitezkeen familiak identifikatzea dakar berekin.

Haurren babesgabetasun-egoerak azaltzeko gorabehera arriskutsuetako batzuk dira hauek:

- Guraso gazteak, muga kognitiboak dituztenak edo heldutasunik ez dutenak eta babes-iturri gutxi edo halakorik ez dutenak.
- Adimen-muga nabarmenak dituzten eta laguntzarik ez duten gurasoak.
- Zailtasun ekonomiko edo material nabarmenak dituzten familiak.
- Gizarte-bazterkeria egoeran dauden edo egoteko arriskuan dauden familiak.
- Nahasmendu psikopatologikoak dituzten gurasoak, ondoez psikologikoaren sintoma nabarmenak dituztenak (sintomatologia depresiboa gehienbat) edo agresibitatea kontrolatzeko arazo handiak dituztenak.
- Bikotearen edo etxebizitzan bizi diren pertsonen arteko ezegonkortasuna edo gatazka handiak.
- Gurasoen rola dela eta estres maila altua duten gurasoak (esaterako, guraso bakarrak, haur asko dituztenak, gaixotasun edo desgaitasun fisiko, mental edo sensorialen baten duten beste seme-alaba batzuk dituztenak).
- Droga edo alkohol gehiegi hartzen duten gurasoak.
- Zigor fisikoaren erabilerarekiko tolerantzia duten gurasoak.

ADI: Bereziki garrantzitsua da gizarte zerbitzuei honako egora hauek jakinaraztea:

- Guraso funtzioak betetzen dituen pertsonetako batek iraganean beste ume baten aurkatatu txarren, arduragabekeriaren edo sexu-indarkeriaren ekintza larriak egin bazituen, edo bikote barruko genero-indarkeria kasuetan inplikaturik egon bazen, eta arazo horiek sortu dituen kausak aldatzeko tratamendu edo errehabilitazio prozesua jarraitu ez bazuen.
- Iraganean, gurasoak haurrari edo bere anai-arrebei kalte larriak (eraso fisikoak egin zizkieten, sexualak, etxean jarrera oldarkorrak izan zituzten eta abar) eragin zizkieten pertsonekin bizi izan badira edo harremana izan badute eta egun gurasoak berriro ere horrelako ezaugarriak dituzten pertsonekin bizi badira edo harremana badute.
- Guraso funtzioak betetzen dituen pertsonetako batek buru-osasuneko nahasmenduren bat badu eta errealitatearekin duen kontaktua galtzen badu, zentzuz jokatzeko eta erabakiak hartzeko gaitasuna mugatzen badio eta bizitza modu autonomoan egitea eragozten badio. Bere buruaz beste egiteko adierazpenak edo saiakerak egon daitezke, delirioak, hurrenganako muturreko arbuioa edo kontrola galdu eta kalte larriak eragitearekiko izua.

BALIO ETA SINESMEN KULTURALAK ETA HAURREKIKO TRATUA

Haur guztiek dauzkate oinarrizko hainbat eskubide eta behar eta horiek bermatu eta ase egin behar dira garapen osoa sustatzeko, haurraren eta familiaren talde soziokulturala gorabehera. Gizarte-zerbitzuek **bakoitzaren balio edo ohitura kulturalak** kontuan hartu eta ahalik eta gehien errespetatu behar dituzten arren, balio eta ohitura horiek haurren oinarrizko eskubideak eta beharrak bermatu behar dituzte. Hala ez bada, gizarte-zerbitzuek esku hartu beharko dute egoera bideratzeko.

Horrek barne hartzen ditu sozialki zabaldua eta kulturalki onartuta egon daitezkeen heziketa-ereduak -esaterako, heziketa- edo diziplina-estiloak, osasun-zaintzaren ereduak, elikadura arlokoak-, baina haurrentzat kaltegarriak edo direnak edo izan daitezkeenak.

Era berean, hor sartuta daude talde soziokultural edo etniko jakin batzuetan ohikoagoak diren edo haiekiko partikularrak diren ohitura batzuk, haurren oinarrizko eskubideak argi eta garbi urratzen dituztenean eta haurrak babesgabe uzten dituztenean. Adibideetako batzuk dira emakumeen mutilazio genitala edo hori egiteko nahia adieraztea -Zigor Kodean tipifikatuta daude biak-, haurrak eskean aritzeko erabiltzea, lan-

esplotazioa, 16 urteak baino lehenago eskola uztera bultzatzea beste lan batzuk egiteko -Zigor Kodean tipifikatuta dago baita ere- edo 16 urtetik beherako en ezkontza edo bikoteen hitzarmena.

 <p>1 DEFINICIÓN DE INFANCIA</p>	 <p>2 NO DISCRIMINACIÓN</p>	 <p>3 INTERÉS SUPERIOR DEL NIÑO</p>	 <p>4 HACER REALIDAD LOS DERECHOS</p>	 <p>5 FAMILIA ORIENTADORA</p>	 <p>6 VIDA SUPERVIVENCIA Y DESARROLLO</p>	 <p>7 NOMBRE Y NACIONALIDAD</p>
 <p>8 IDENTIDAD</p>	 <p>9 MANTENER A LAS FAMILIAS UNIDAS</p>	 <p>10 PRESERVAR EL CONTACTO FAMILIAR</p>	 <p>11 PROTECCIÓN CONTRA EL SECUESTRO</p>	 <p>12 RESPECTAR LA OPINIÓN DE LOS NIÑOS</p>	 <p>13 LIBERTAD DE EXPRESIÓN</p>	 <p>14 LIBERTAD DE PENSAMIENTO Y RELIGIÓN</p>
 <p>15 LIBERTAD DE ASOCIACIÓN Y REUNIÓN</p>	 <p>16 PROTECCIÓN DE LA PRIVACIDAD</p>	 <p>17 ACCESO A INFORMACIÓN</p>	 <p>18 RESPONSABILIDAD DE LAS FAMILIAS</p>	 <p>19 PROTECCIÓN CONTRA LA VIOLENCIA</p>	 <p>20 NIÑOS SIN FAMILIA</p>	 <p>21 ADOPCIÓN</p>
 <p>22 NIÑOS REFUGIADOS</p>	 <p>23 NIÑOS CON DISCAPACIDAD</p>	 <p>24 SALUD, AGUA, ALIMENTACIÓN Y MEDIO AMBIENTE</p>	 <p>25 REVISIÓN DE LOS INTERNAMIENTOS</p>	 <p>26 AYUDAS SOCIALES Y ECONÓMICAS</p>	 <p>27 ALIMENTO, ROPA Y UN HOGAR SEGURO</p>	 <p>28 ACCESO A LA EDUCACIÓN</p>
 <p>29 OBJETIVOS DE LA EDUCACIÓN</p>	 <p>30 CULTURA, LENGUA Y RELIGIÓN DE LAS MINORIAS</p>	 <p>31 DESCANSO, JUEGO, ARTE Y CULTURA</p>	 <p>32 PROTECCIÓN ANTE EL TRABAJO PELIGROSO</p>	 <p>33 PROTECCIÓN CONTRA LAS DROGAS</p>	 <p>34 PROTECCIÓN CONTRA EL ABUSO SEXUAL</p>	 <p>35 PREVENCIÓN DE LA VENTA Y TRATA</p>
 <p>36 PROTECCIÓN CONTRA LA EXPLOTACIÓN</p>	 <p>37 NIÑOS PRIVADOS DE LIBERTAD</p>	 <p>38 PROTECCIÓN EN LAS GUERRAS</p>	 <p>39 RECUPERACIÓN Y REINSERCIÓN</p>	 <p>40 NIÑOS QUE INCUMPLEN LAS LEYES</p>	 <p>41 APLICAR LA LEY MAS FAVORABLE</p>	 <p>42 QUE TODOS CONOZCAN ESTOS DERECHOS</p>
<p>43-54</p>  <p>CÓMO FUNCIONA LA CONVENCION</p>	<h1>DERECHOS DE LA INFANCIA</h1> <p>LA CONVENCION DE LAS NACIONES UNIDAS SOBRE LOS DERECHOS DEL NIÑO -VERSIÓN RESUMIDA</p>					

HAURRAK HOBETO TRATATZEA: BABESGABETASUN EGOERATZAT JOTZEN EZ DIREN, BAINA ZUZENDU BEHARKO LIRATEKEEN HELDUEN JOKABIDEAK

Ongizatea eta garapen osasuntsua bermatzeko, haurrek inguru -familia, eskola, komunitatea- seguruan, babestuan eta haien behar fisikoak, segurtasunezkoak, emozionalak, sozialak eta oinarrizko kognitiboak aseko dituzten inguruneetan hazi behar dute. Aurreko ataletan jorratu ditugun haurren babesgabetasun- eta zaurgarritasun-egoerek eragotzi egiten dute edo benetako mehatxua dira behar horiek asetzeko. Baina badira larritasun edo mehatxu maila horretara heldu gabe ere, desegokiak diren gurasoen beste jokabide batzuk ere. Positiboak ez diren heziketa, zaintza, tratu edo harreman-ereduak dira, eta gurasoek saihestu eta seme-alaben beharretara hobeto egokitzen diren beste batzuekin ordeztu beharko lituzkete. Eredu desegoki horiek oraindik ere iraun egiten dute, besteak beste, sozialki eta kulturalki onartuta daudelako eta “normaltzat” eta ez kaltegarritzat hartzen direlako.

Epe laburrean, gurasoen jokabide horiek kalte nabarmenak edo larriak eragin ditzakete haurren garapenean, eta denboran irauten badute edo maiztasuna edo intentsitatea areagotzen bada, eragina izango dute zalantzarik gabe eta kaltetzera hel daitezke.

Zorionez, jokabide horiekiko tolerantzia soziala gutxitzen ari da. Gure testuinguru soziokulturalean, ohikoenetakoak dira:

- Noizbehinka indar fisikoa erabiltzea (kalte fisiko larriarik edo lesiorik eragin gabe, esaterako, ipurdiko arinak edo zaplaztekoa, kolpeak eskuetan) desadostasuna adierazteko edo haurren portaera kontrolatzen saiatzeko.
- Medikuen irizpidearen arabera, egokiak ez diren dieta- edo elikadura-ohiturak izatea, osasunean arazorik sortzen ez duten arren (esaterako, nutrizionalki orekatuta ez dauden elikagaien gehiegizko erabilera).
- Gurasoen beharrak lehenestea haurren behar afektiboen, komunikaziozkoen eta estimulaziozkoen aurretik. Haurra entretenitzeko gailu elektronikoak edo telebista erabiltzea normalean, gurasoekin interakziorik izan gabe. Haurraren zaintza hirugarren batzuen esku uztea gehiegitan.
- Haurren errutinetan (otorduak, ordutegiak) edo atsedean hartzeko eta lo egiteko beharretan eragina duten helduen jarduera sozialetan parte-hartzea.
- Gurasoek edo helduek haurren aurrean eztabaidatzea. Helduen arteko gatazketan tarteka haurrak erabiltzea edo sartzea.

- Bazterkeriako edo axolagabetasuneko adierazpideak izatea edo hurrei eraso fisikoarekin mehatxu egitea tarteka.
- Haurren aurrean alkohola kontsumitzea.
- Tarteka beste pertsona batzuekiko gorrotoa, gutxiespena, indarkeria edo menderakuntza adieraztea haurren aurrean, haien sexua, erlijioa, jatorria, arraza edo etnia, sexu-orientazioa, baldintzak fisikoak edo antzekoak direla eta.
- Haurrak indarkeriazko portaera-ereduen eraginpean izatea familiatik kanpo.

Positiboak ez diren heziketa, zaintza, tratu edo harremanen ereduak dira, eta gurasoek saihestu eta seme-alaben beharretara hobeto egokitzen diren beste batzuekin ordeztu beharko lituzkete.

Eredu desegoki horiek oraindik ere iraun egiten dute, besteak beste, sozialki eta kulturalki onartuta daudelako eta “normaltzat” eta ez kaltegarritzat hartzen direlako.

Garrantzitsua da jokaera horiek aldatzea. Horretarako, gizarte-zerbitzuek **gurasotasun positiborako saioak eta programak** garatzen dituzte, haurren ongizaterako eta garapenerako positiboak diren heziketa-, tratu- eta harreman-ereduak sustatzeko, eta eredu desegokiak hauteman eta sortzen dituzten kalteen inguruko kontzientzia hartzeko. Saio eta programa horiek komunitateko guraso guztiei daude zuzenduta eta idatzizko materialen bitartez, Interneten, hitzaldietan, tailerretan, komunikabideetako mezuetan eta abarretan zabaltzen dituzte.

Familiekin lan egiten duten zerbitzuetako profesionalak zeregin garrantzitsua dute mezu horiek hartzaileei helarazteko, jarduera eta programa horiek abian jartzeko ekimena edo laguntza emanez, gurasoei mezu horiek helaraziz haiekin dituzten harremanetan, laguntza eta orientazioa emanez – zuzenean edo gizarte-zerbitzuetara edo behar dituzten beste komunitate-zerbitzuetara bideratuta –. eta haurrentzako zaintzari, tratuari eta harremanei dagokienez eredugarri izanda.

ERANSKINA

OINARRZIKO BEHARRAK HAURTZAROAN, 6-12 URTE GOGOBETETZE ADIERAZLEAK ¹: BEHARREN GOGOBETETZE ADIERAZLEAK - 6-9 URTE

BEHAR FISIKOAK	SEGURTASUNA	BEHAR EMOZIONALAK
<ul style="list-style-type: none"> Oro har, osasun ona dute; ohiko gaixotasunak Pisua eta neurria esperotako mailan Haurrak dieta egokia eta elikagarria du Erregulariki bainatzen dute Eguraldiaren arabera janzten dute Arropa garbia izaten du normalean Gurasoak arduratzen dira haurrek higiene pertsonal egokia dutela bermatzeaz. Errutinazko pediatriaren kontrolera joaten da Txertoak jasotzen ditu; eta hala ez bada, horretarako arrazoi egokia du Behin eta berriz izaten dituen gaixotasunak azalpen medikoa dute Ahoko zaintza eta arreta erregularra eta egokia ditu Gurasoak arduratzen dira haurrek nahiko lo egiten dutela bermatzeaz Haurrak ordutegi egonkorrak eta egokiak ditu (otorduak, loa, bainua) 	<ul style="list-style-type: none"> Haurrak dituen lesioak behar bezala artatzen dizkiote Lesioek edo arrasto fisikoek azalpen onargarria dute Haurra beste pertsona batzuen erasoetatik, abusutik edo jazarpenetik babesten dute. Haurrak jolas egin dezakeen leku segurua daude etxean Gurasoek beti dakite haurra non dagoen Ikuskapen egokia jasotzen du, bere nortasunaren eta garapen mailaren arabera Gurasoek haurraren eta anai-arreben arteko harremana ikuskatzen dute Oro har, anai-arrehek ondo tratatzen dute haurra Heldu arduradunek haurra ikuskatzen dute edo gurasoek seguruak direla egiaztatzen dituen tokietan aritzen dira jolasean Heldu arduradunek eta ezagunek eraman eta jasotzen dute haurra eskolatik Zaintzen duten senideen eta pertsona helduen kopurua mugatua da Gurasoek haurrari erakutsi diote ezezagunekin nola jokatu Gurasoek ziurtatu egiten dute haurra zaintzen ari direla/laguntza duela, arriskutsuak diren tokietan bereziki Gutxienez pertsona heldu batek argi esleituta du haurra zaintzeko ardura Haurrari segurtasun- eta babes-neurriak erakutsi dizkiote, bai etxe barruan, bai etxetik kanpo 	<ul style="list-style-type: none"> Haurrak harreman egonkorra du gutxienez familiako heldu batekin Zaintzen duten helduen artean jarraipena dago Gurasoek haurra lasaitzen dute gaixorik dagoenean, haserre dagoenean, beldur denean edo min hartu duenean Bere buruarekiko konfiantza hartzea sustatzen dute Maiz erakusten diote haurrari bat-bateko afektua Baldintzarik gabe maite dute Bera denarengatik baloratzen dute Gurasoak harro daude haurraren Familiako kide gisa onartzen dute Familiako ospakizunetan parte hartzen du Gurasoek nahiko denbora ematen du haurraren, lotura positiboa eta sendoa garatu ahal izateko Familian afektu-harremanak ezartzea indartzen dute Haurraren ahaleginak eta lorpenak indartzen dituzte Beste haur batzuek iraindu edo erasotu egiten dutenean, babestu egiten dute Bere beldur eta kezken inguruan hitz egitera animatzen dute Haurrak etxean jasotzen dituen erantzunak sendoak eta aurrez ikus daitezkeenak dira Gurasoek interesa adierazten dute haurrak eskolan egiten duenaren inguruan Lorpen akademikoak indartu eta onartzen dituzte Familian dauden desadostasunak indarkeriarik gabe konpontzen dituzte Haurraren egunerokoak errutinak ditu, eta ordenatua eta egonkorra da Independente izateko ahaleginak errespetatzen dituzte Autonomia maila altuagoak hartzen joan dadin sustatzen dute Gurasoek bere adin eta garapen mailarako egokiak diren autozaintzarako ardurak hartzea sustatzen dute, eta adoretu egiten dute, beti haurra seguru dagoela ikuskatu eta egiaztatzen duten arren. Helduek dute familia zaintzeko ardura nagusia Haurrak ez du ikusten helduen arteko sexu-harremanik edo ez dago horien tartean Haurrak ez du ikusten helduen arteko egoera biolentorik edo ez dago horien tartean Helduek jokabide xebeak edo izua eragin diezaioketenak ikustea eragozten dute

1 "Framework for the assessment of children in need and their families"tik hartutakoa (2000). Department of Health, UK Government.

BEHAR SOZIALAK	BEHAR KOGNITIBOAK
<ul style="list-style-type: none"> • Haurrak beste pertsona heldu batzuekin eta beste ume batzuekin harremana izatea sustatzen dute • Beste haur batzuekin partekatzea eta jolas egitera animatzen dute • Eskola-orduetatik kanpo lagunekin egoten da • Lagunak etxera gonbidatzen ditu • Haurrak lagunak etxera ekar ditzen sustatzen dute helduek • Eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzea sustatzen dute • Haurraren jokabidea kudeatzeko arazoak baldin badituzte, laguntza eskatu dute gurasoek • Haurraren jarrera maneiatzeko metodo egokiak erabiltzen dituzte (errefortzu positiboa, negoziaketa, modelaketa, sariak, entretenimendua, pertsuasioa, iraungitzea eta abar). • Familiaren jokabidearen inguruko muga eta arau argiak daude • Muga eta arau horiek bi gurasoek ezagutzen eta errespetatzen dituzte • Haurrari emozioak kontrolatzen laguntzen diote • Negoziatzera animatzen dute • Gurasoek beste pertsonekin duten harremanzako modua eredu egokia da haurrarentzat • Beste pertsona batzuekiko eta desberdintasunarekiko errespetua eta tolerantzia erakutsi dizkiote haurrari • Jokamolde egokiak eta beste pertsonenekiko errespetua izaten erakutsi diote • Gurasoek bizilagunekin eta autoritateekin duten harremana egokia da oro har • Haurrari erakutsi diote ez duela portaera biolentorik edo gaiztorik izan behar • Gurasoek eskolako arauak babesten dituzte • Haurrari irakasten diote eta toki publikoetan jarrera egokia izan dezan sustatzen dute • Familia onartua sentitzen da komunitatean 	<ul style="list-style-type: none"> • Haurra aktiboa izan dadin sustatzen dute • Haurrak etxetik kanpo jolas egiten du normalean • Askotariko jostailu eta ikasteko materialak ditu eta bere adinerako egokiak dira. • Bere jostailuak, liburuak eta eskolako materiala kontuz tratatzen ditu • Gurasoek liburuak irakurri, istorioak kontatu, haurrarekin jolastu edo berarekin batera jarduerak egin ohi dituzte • Haurra erregulari joaten da eskolara • Gurasoek etxeko lanak egitea babestu eta ikuskatzen dute • Irakaslearekin dituzten tutoretza eta hitzorduetara joaten dira • Haurraren ikasketa modu egonkorrean indartzen dute • Haurra eskolara erregulari joatea babesten dute

BEHARRIN GOGOBETETZE ADIERAZLEAK - 10-12 URTE

BEHAR FISIKOAK	SEGURTASUNA	BEHAR EMOZIONALAK
<ul style="list-style-type: none"> Oro har, osasun ona dute; ohiko gaixotasunak Haurren gaixotasunek arreta mediko egokia jasotzen dute Haurrak dieta osasuntsua du Arropa garbia egon ohi da normalean Higiene pertsonal egokia du Behin eta berriz izaten dituen gaixotasunek medikuaren azalpena dute Gurasoek bermatzen dute etxeko higie baldintzak egokiak direla Gurasoek osasun-ohitura egokiak erakusten dizkiote haurrari (elikadura, kirola, drogen eta alkoholarekin kontsumoa) Haurrak ariketa fisikoa egitea sustatzen dute gurasoek Haurrak bere osasunaren inguruko ardurak hartzea sustatzen dute gurasoek Haurraren ondoez fisikoaren edo lesioen sintomestik sentsibleak dira Haurrak ahoko osasun egokia jasotzen duela bermatzen dute Haurraren eguneroko zaintzaren ardura nagusia hartzen du gutxienez pertsona heldu batek 	<ul style="list-style-type: none"> Haurrak dituen lesioak behar bezala artatzen dizkiote Lesioek edo arrasto fisikoek azalpen onargarria dute Haurra beste pertsona batzuen erasoetatik, abusutik edo jazarpenetik babesten dute Gurasoek beti dakite haurra non dagoen Haurrak ikuskapen egokia jasotzen du, bere nortasunaren eta garapen mailaren arabera Gurasoek haurraren eta anai-arreben arteko harremana ikuskatzen dute Haurra edo nerabea zaintzen duten senideen eta pertsona helduen kopurua mugatua da Gurasoek haurrari erakutsi diote ezezagunekin nola jokatu Gurasoek ziurtatu egiten dute haurra norbaitek zaintzen/laguntzen duela, bereziki arriskutsuak diren tokietan Haurrari segurtasun- eta babes-neurriak erakutsi dizkiote, bai etxe barruan, bai etxetik kanpo Gurasoak ahalegintzen dira bermatzen etxetik eskolarako eta eskolatik etxerako bidea segurua izan dadila 	<ul style="list-style-type: none"> Haurra zaintzen duten helduen artean jarraipena dago Gurasoek haurra lasaitzen dute haserre dagoenean, edo beldur denean Haurrari ziurtatzen diote beti babestuko dutela Bere buruarekiko konfiantza hartzea indartzen dute Maiz erakusten diote bat-bateko afektua Gurasoak harro daude haurrarekin Haurra familiako kide gisa onartzen dute Familiako ospakizunetan parte hartzen du Gurasoek nahiko denbora ematen du haurrarekin, lotura positiboa eta sendoa garatu ahal izateko Familian afektu-harremanak ezartzea indartzen dute Haurraren ahaleginak eta lorpenak babesten dituzte Bere beldur eta kezken inguruan hitz egitera animatzen dute Haurrak etxean jasotzen dituen erantzunak sendoa eta aurre ikus daitezkeenak dira Gurasoek interesa adierazten duten haurrak eskolan egiten duenaren inguruan Eskolako lorpenak indartu eta onartzen dituzte Familian dauden desadostasunak indarkeriarik gabe konpontzen dituzte Haurraren egunerokoa ordenatua eta egonkorra da Independente izateko ahaleginak errespetatzen dituzte Autonomia maila altuagoak hartzea sustatzen dute Gurasoek haurraren adin eta garapen mailarako egokiak diren autozaintzarako ardurak hartzea sustatzen dute eta horretara animatzen dute, nahiz eta beti ikuskatzen duten seguru dagoela Haurra adoretu egiten dute hartzen ari den autozaintzarako gaitasunengatik Helduek dute familia zaintzeko ardura nagusia Gutxienez pertsona heldu batek du argi esleituta etxea zaintzeko ardura Gurasoek haurra babestu eta laguntzen dute zailtasun akademikoak dituenean Haurraren arropa eta itxura bat datoz berak nahi duenarekin Erabakiak hartzen eta bere bizitzako alderdi batzuk kontrolatzen uzten diote Haurrak ez du ikusten helduen arteko sexu-harremanik edo ez dago horien tartean Haurrak ez du ikusten helduen arteko egoera biolentorik edo ez dago horien tartean Helduek jokabide xebreak edo izua eragiten diezaioketenak ikustea eragozten dute Gurasoek kanpoko laguntza bilatzen dute harremanean edo seme-alabekin dituzten arazoak konpontzeko

BEHAR SOZIALAK	BEHAR KOGNITIBOAK
<ul style="list-style-type: none"> • Haurra partekatzea eta beste haur batzuekin jolastera animatzen dute • Eskola-orduetatik kanpo haurra lagunekin egoten da • Lagunak etxera gonbidatzen ditu • Haurrak lagunak etxera ekar ditzan sustatzen dute helduek • Haurraren laguntasun-harreman positiboak indartzen dituzte • Haurra eragin negatiboa izan dezaketen pertsona helduekin harreman dadin eragotzen dute • Gurasoek metodo egokiak erabiltzen dituzte haurra elkarlanean aritzeko eta portaera egokia izateko • Familiaren jokabidearen inguruko muga eta arau argiak daude • Muga eta arau horiek bi gurasoek ezagutzen eta errespetatzen dituzte • Haurra negoziatzera animatzen dute • Gurasoek beste pertsonekin duten harremantzeko modua eredu egokia da haurrarentzat • Haurrari jokamolde egokiak eta beste pertsonetikiko errespetua eta tolerantzia irakasten dizkiote • Legea errespetatzen irakasten diote • Etxeko lanetan laguntzea sustatzen dute • Gurasoek bizilagunekin eta autoritateekin duten harremana egokia da oro har • Haurrari erakutsi diote ez duela portaera biolentorik edo gaiztorik izan behar • Eskolako arauak babesten dituzte • Haurrak toki publikoetan portaera egokia izan dezan irakatsi eta sustatzen dute • Familia onartua sentitzen da komunitatean • Gurasoek babestu egiten dute haurrak sexu-heziketa jasotzea edo beraiek ematen diote • Haurrak mezu argiak jaso ditu sexu-portaera egokiaren inguruan • Gurasoek ez dute alkoholik kontsumitzen edo oso modu kontrolatuan egiten dute, eta eredu ona dira haurrarentzat 	<ul style="list-style-type: none"> • Gurasoek liburuak irakurtzen dizkiote haur edo nerabeari, istorioak kontatu, berarekin jolastu edo jarduerak egin. • Haurrak gaitasun berriak garatzea sustatzen dute • Eskolako bilakaeran eragina izan dezaketen familia-arazoetatik aldentzen ahalegintzen dira • Haurrak denbora nahikoa du bere zaletasunei edo interesei eskaintzeko • Haurra etxerako lanekin babesten dute gurasoek • Irakaslearekin dituzten tutoretza eta hitzorduetara joaten dira • Gurasoak arduratzen dira haurra erregulartasunez eskolara joateaz

